

## ***Getxoko Udalean Gizarte Larrialdietarako Laguntzen onuradunek bete beharreko baldintzak eta laguntzak emateko irizpideak.***

- 1. Sarrera**
- 2. GLLak emateko irizpideak.**
- 3.-Berariazko gastuak**
- 4. Eskaerak aurkezteko epea.**
- 5.. Eskaerak eta dokumentazioa**
- 6. Ebazpena eta jakinarazpena**
- 7. Laguntza justifikatzea**
- 8 Erreferentziako legeria**
- 9. Eranskinak**

### **1. Sarrera**

**14/2022 Legeak, abenduaren 22koak, Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemari** buruzkoak, bi helburu ditu. Alde batetik, diru-sarrerak bermatzeko sistemak eskaintzen dituen prestazio ekonomikoen estaldura eta sarbidea hobetzea, eta, bestetik, lan- eta gizarte-bizitzan moldatzeko zailtasunak dituzten euskal herritarrek gizarte-zerbitzuetarako eta enplegurako sarbidea hobetzea, prestazio ekonomikoen (DSBE eta BGDS) eta laguntzen (GLL) arteko bereizketa kontzeptuala eginez, araubide juridiko desberdina baitakarte berekin, lehenengoak eskubide subjektibo gisa kategorizatzeari lotuta, eta GLLak, berriz, dirulaguntzak dira.

**21/2026 Dekretuak, 2026 otsailaren 24an Gizarte Larrialdietarako Laguntzen** araudia arautzen du, eta laguntza horiek borondatezko gizarte-prestazioen barruan kokatzen ditu: izaera ekonomikoko eta dirulaguntza-izaerako aldizkakotasunik gabeko laguntzak dira, helburu zehatz bati lotutakoak, eta gizarte-bazterkeriako edo -arrikuari aurre egiteko, prebenitzeko edo arintzeko beharrezkoak diren ohiko edo ez-ohiko gastu espezifikoari aurre egiteko baliabide nahikorik ez duten pertsonen zuzenduta daude; laguntza horiek emateko, betiere, helburu horretarako esleitutako kreditua egon beharko da.

**Agindua, 2026eko martxoaren 31koa,** Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburuarena eta Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko sailburuarena, zeinaren bidez ezartzen baitira Gizarte Larrialdietarako Laguntzetan jasotako gastu espezifiko bakoitzerako 2026. urterako gehieneko zenbatekoak, laguntza horietarako ezarritako kredituak banatzeko irizpideak eta Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historiko eta udal bakoitzari 2026. urterako dagokion aurrekontu-muga ezartzen baitira.

## **2. Irizpideak**

Indarrean dagoen araudiaren arabera, dokumentu honetan ezartzen dira Getxoko Udalean aurkezten diren GLLen eskaerak izapidetzeko udal-irizpideak, 0020/23100/4800200 aurrekontu-partidan erabilgarri dagoen kreditua agortu arte.

### ***2.1 Onuradunen betebeharrak.***

GLLen eskatzaileek aurreko urteetako GLLen justifikazioen berri izan beharko dute eta/edo ez dute zorrik izan beharko Udalarekin kontzeptu horrengatik betearazpen-bidean.

Pertsona batek aurreko urteetako justifikazioak egunean dituela ulertuko da, baldin eta, laguntza osoa justifikatu ez badu ere, justifikatu gabeko zatia borondatez itzultzeko eskatu badu edo jada adostutako zorra zatikatzeko eskatu badu.

Arau orokor horretatik kanpo geratzen dira:

a.- kontzeptu hauengatik egindako eskabideak: errentamendua, etxebizitza berri bat instalatzearekin lotutako aparteko gastuak, hipoteka-mailegua, mantentze-lanak, energia eta oinarrizko premiak (kontzeptu hori soilik eskaera egiten den unean eskatzaileak hilean 300 €baino gutxiagoko diru-sarrerak baditu). Eskaera horiek beti izapidetuko dira, eskatzaileak aurretik zorrak izan ala ez.

b.- Altzariak, konponketak eta instalazioak, eta oinarrizko premiak kontzeptuengatik eskaerak, baldin eta eskatzaileak egindako gastuaren faktura aurkezten badu eskaera egiteko unean.

Ez dute zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunean egon beharrik izango Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 e) artikulua GLLen onuradunek.

Salbuespen horren oinarria GLLen izaera bera da; izan ere, gizarte-bazterkeriako egoerak prebenitzea, saihestea edo arintzea dute helburu, biztanleriaren benetako premietan oinarrituta.

### ***2.2 Urteko eskaeren muga:***

GLLak urtean behin eskatu eta emango dira.

Bigarren GLL bat izapidetu eta ebatzi ahal izango da, baldin eta GLLetan aurreikusitako edozein premia sortzen bada, bizikidetzaren unitatearen egoera ekonomikoan, erroldan edo etxebizitzan aldaketak gertatzen diren kasuetan, betiere egindako gastuaren faktura aurkeztuta.

2026ko ekainaren 16 an TGB 2026/105 akordioa onartuta

### **2.3 Urteko kontzeptuen muga:**

Bizikidetza-unitate bakoitzari eman beharreko kontzeptuen gehieneko muga **4 kontzeptukoa** izango da, salbu eta GLL eskaeran 3.a.1 eta 3.a.3 apartatuetan (alokairua eta hipoteka) jasotako gastuak eskatzen direnean; kasu horretan, 3 kontzeptu eskatu ahal izango dira.

- Alokairu- edo hipoteka-gastuak barne hartzen dituzten eskaeretan, gehieneko zenbatekoa 4.800 eurokoa izango da (3 kontzeptu).
- Alokairu- edo hipoteka-gastuak barne hartzen ez dituzten eskaeretan, gehieneko zenbatekoa 2.500 eurokoa izango da (4 kontzeptu).

### **2.4 Bizikidetza-unitateen muga:**

Helbide berean bizi diren bizikidetza-unitateei eman dakizkiekeen gizarte-larrialdietarako laguntzen gehieneko kopurua **bi** izango da, alokairu-gastuak eskatzen diren kasuetan.

Gainerako kontzeptuetarako, aginduan xedatutakoari jarraituko zaio.

### **2.5 Laguntza jaso dezaketen zenbatekoak:**

Eskaera bakoitzari eslehi dakioken zenbatekoa honako hau izango da: eskatzailearen eta bizikidetza-unitateko gainerako kideen diru-sarreraren arabera kalkulaturako ehuneko bat aplikatzearen emaitza, bai eta unitate hori osatzen duten kideen guztizko kopurua ere, artikulua honetan kontzeptu bakoitzerako ezartzen den gehieneko zenbatekoaren gainean, edo benetako gastuaren zenbatekoaren gainean, kontzeptu bakoitzeko gehieneko zenbateko hori baino txikiagoa bada, gizarte-larrialdietarako laguntzak arautzen dituen Dekretu berriaren 12. eta 13. artikuluetan adierazitakoaren arabera.

### **2.6 Gizarte-larrialdietarako laguntzen izaera subsidiarioa:**

GLLen onuradunek edo haien bizikidetza-unitateko kideek, aldez aurretik, legokiekeen eduki ekonomikoko edozein baliabide edo **gizarte-prestazio publiko** eskatu beharko dute.

3 urte baino gehiago badaramazu Etxebiden izena emanda, Eusko Jaurlaritzan eskatu behar dituzu Etxebizitzarako Eskubide Subjektiboa eta Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoa.

## 2.7 Erroldatze-egoerak:

**Gizarte-erroldatzea** baimenduta duten eta beren GLrekin aldizkako jarraipena mantentzen ari diren pertsonak BU independentetzat joko dira, eta etxebizitza-kontratua aurkezteko betebeharretik salbuetsiko dira; horrela, oinarrizko eta lehen mailako premien kontzepturako GLLak eskuratu ahal izango dituzte.

Eskaera egin aurreko 6 hilabeteetan Getxoko udalerrian erroldatuta egon ez den pertsona batek egiten badu eskaera, lehenago erroldatuta egon den udalerriko errolda-agiria eskatuko zaio. Halaber, ziurtagiria eskatuko zaie, udalerrri horretan urte horretan GLLak jaso dituzten ala ez adierazten duena.

## 2.8 Gizarte-larrialdietarako laguntzen bateraezintasunak

1.- EGPOrekiko bateraezintasuna: GLLak jasotzea honako kontzeptu hauengatik:

- ✓ lokairurako,
- ✓ Interesen eta kredituen amortizazioaren ondoriozko gastuak.
- ✓ Energia-gastuak.
- ✓ "linea zuriko" altzari eta etxetresna elektrikoen gastuak  
Etxebizitza egokitzeko, konpontzeko eta/edo oinarrizko instalazioak egiteko gastuak.
- ✓ Etxebizitza erabiltzeko eta mantentzeko beharrezkoak diren beste gastu batzuk
- ✓ Etxebizitza berri batean instalatzearekin lotutako aparteko gastuak, hala nola fidantza, alta horniduretan, egokitzapena.

2.- Ez da bateragarria **BPE, Gaztelagun, Emantzipa** eta etxebizitza librea alokatzeko beste laguntza batzuekin: Alokairu-kontzeptuagatik GLL jasotzea.

## 3. Gastu espezifikoak

Gastu espezifikoak eskuratzeko baliabideak zehazteko, honako arau hauei jarraituko zaie:

a.- "Ohiko etxebizitza edo bizitokia izateko eta mantentzeko beharrezkoak diren gastuak" kontzeptuarekin lotutako gastuetarako, bizikidetzaren unitate osoaren diru-sarrerak zenbatuko dira. Bizikidetzaren unitate osoa osatzen dute odolkidetasuneko eta ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailarainoko harremana, adopzioa edo familia-harrera iraunkorra edo adopzio aurrekoa duten pertsona guztiek, bai eta ezkontza-loturaren bidez edo ezkontzaren antzeko

loturaren baten bidez elkartutakoek ere (Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen 25. artikulua).

Horren oinarria da pertsona horiek guztiek eskatzen diren gastuak jasoko dituztela ulertzea, guztiak etxebizitza berean bizi baitira eskatzailearekin.

b.- Oinarrizko premiei buruzko gastuen kontzeptuarekin lotutako gastuetarako, laguntzaren eskatzailearen edo, hala badagokio, haren onuradunaren diru-sarrerak soilik hartuko dira kontuan, baldin eta onuradunak salbuespenezko bizikidetz-unitate bat osatzen badu Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen 26. artikuluan araututakoen artean.

Horren oinarria da ulertzea laguntzaren onuradun bakarra gastuaren eskatzailea edo hartzailea izango dela.

**a.- Ohiko etxebizitza edo bizitokia izateko eta mantentzeko beharrezkoak diren gastuak, honako hauek barne:**

1. Alokairu-gastuak.

Kontzeptu horren **helburua** da ohiko etxebizitzaren alokairuak, baterako errentamenduak edo azpierrentamenduak, ostatuak eta apopilotzak eragindako gastuak ordaintzea, baldin eta:

- ✓ Eusko Jaurlaritzak edo beste administrazio batek sustatutako babes publikoko etxebizitza motaren batean sartuta ez badago.
- ✓ Alokairu-kontratuaren titularrak ez egotea elkarrekin ezkondata edo ezkontzaren antzeko iraunkortasunezko bestelako harreman baten bidez lotuta; edota alokatzailearen eta alokairu-hartzailearen artean, eta horien bizikidetz-unitateetako edozein kideren artean, bigarren mailarainoko odol-ahaidetasuneko edo kidekotasunezko harremanik ez egotea.

Nahitaezkoa izango da **Etxebiden alta** emanda egotea eta **Bizigune Programako** ezein etxebizitzari uko ez egitea, 65 urtetik gorakoei eta etxebizitza berean 10 urte baino gehiago daramatela egiaztatzen duten edo etxebizitza eskuratzeko baldintzak betetzen ez dituzten pentsiodunei izan ezik.

Alokairu-, baterako errentamendu-, azpierrentamendu-, ostatu- edo apopilotza-kontratuen titularrak **eskatu ahal izango** dute.

**Salbuespen** gisa, ohiko etxebizitzaren alokairua ordaintzeko laguntzak eskuratu ahal izango dituzte beste etxebizitza baten jabeek/gozamedunek, baldin eta ohiko etxebizitza utzi behar izan badute irisgarritasun faltagatik, desgaitasun-egoera batengatik edo egoera hori larriagotzeagatik, banantzeagatik edo dibortzioagatik edo beste arrazoi batzuegatik, hala nola etxegabetzeagatik edo indarkeria matxistaren biktima izateagatik, besteak beste. Salbuespen hori **bi urtez** bakarrik mantenduko da, lehenengo eskaeratik aurrera.

Bi urte horietan, ez da zenbatuko jabetzan duzun etxebizitzaren katastro-balioa.

Eman beharreko **zenbatekoen mugak** aldatu egingo dira alokairua ordaintzeko laguntza eskatu duten bizikidetzaren kopuruaren arabera.

- Bizikidetzaren unitate errentari bakarra duten etxebizitzaren kasuan, **gehieneko muga hilean 300 eurokoa izango da**, eta ezin izango da alokairuaren prezioaren % 70 gainditu.

- Hainbat bizikidetzaren unitate azpierrengatuta dituzten edo ostatatze- eta/edo pentsio-kontratuak dituzten etxebizitzaren kasuan, ez da bi eskaera baino gehiago onartuko, eta:

a.- Bizikidetzaren unitate bakar batek eskatzen duen kasuetan, gehieneko muga **300** eurokoa izango da **hilean**, eta ezingo da azpierrengatuta, ostatatzearen eta/edo pentsioaren prezioaren % 70 gainditu.

b.- Bi bizikidetzaren unitateek eskatzen duten kasuetan, gehieneko muga **150 eurokoa** izango da **hilean**, eta bien artean ezingo dute etxebizitzaren prezioaren % 80 gainditu.

Alokairu-kidetzaren kasuetan, GLL bakarra onartuko da etxebizitzaren kontzeptuagatik, eta gehieneko muga 300 eurokoa izango da hilean, alokairuaren prezioaren % 70 gainditu gabe.

- **Ostatuetan, hoteletan, pentsioetan eta legez eraturako gizarte-erakundeetako etxebizitzetan** ostatu hartuz gero, mugak 300 eurokoak izango dira hilean bizikidetzaren unitate (BU) bakoitzeko. Kasu horretan, bizikidetzaren unitatearen muga ez da bi izango, establezimenduan **legez onartutako gela**-kopuruaren arabera baizik. (Ikus III. eranskina)

Hileko lehen edo azken egunean hasten edo amaitzen ez diren kontratuen kasuan, hilabete horretako laguntzaren zenbatekoa egunen arabera hainbanatuta kalkulatu da.

Hileko lehen edo azken egunean hasten edo amaitzen ez diren kontratuen kasuan, hilabete horretako laguntzaren zenbatekoa egunen arabera hainbanatuta kalkulatu da

### **Kontratu motaren arabera beharrezkoak diren dokumentuak:**

- **Alokairuko, baterako errentamenduko, ostatuko eta etxebizitza-apopilotzako** kontratua. Etxebizitzaren kontratuaren fotokopia aurkeztu beharko da. Maizterrak etxebizitza azpierrentan eman badu, azpierrentamendu-kontratuen kopia ere aurkeztu beharko du.

- **Azpierrentamendu**-kontratua. Azpierrentamendu-kontratuaren eta etxebizitzaren alokairuaren fotokopia aurkeztu beharko da, jabearen sinadurarekin, azpierrentan eman beharreko baimen gisa. Hori ezinezkoa den kasuetan, eskatzaileari zinpeko aitorten bat eskatuko zaio, errentariak alokairu-kontratuaren kopia bat eman nahi izan ez diola adieraziz. Hala ere, beti izango da beharrezkoa azpierrentamendu-kontratua, esku hartzen duten alderdiek sinatuta.

### 2.- Ohiko etxebizitza edo bizitokia erostearen ondorioz gizarte-larrialdiko egoeraren aurretik hartutako kredituen interesak eta amortizazioa.

Kontzeptu honen **helburua ohiko etxebizitza erosteko kredituen interesek** eta amortizazioak eragindako gastuak estaltzea da.

Ohiko etxebizitza erosteko kredituen titularrek **eskatu ahal izango dute.**

Ez da etxebizitzaren gaineko hipotekarik onartuko beste ondasun batzuk eskuratzeko edo bestelako gastuak ordaintzeko. Era berean, ez da hipotekarik onartuko babes publikoko ezin etxebizitza-motatan sartutako etxebizitzak eskuratzeko.

Ohiko etxebizitzako hipoteka-maileguen gastuetara bideratutako GLLak emateko 5 urteko denbora-muga (21/2026 Dekretuaren 14.b art.) etxebizitzak salbuespenezko balioa duela jotzen denean soilik aplikatuko da (katastro-balioa 400.000 €-tik gorakoa denean). Muga hori ez da inola ere aplikatuko 60 urtetik gorako kideren bat duten bizikidetzak-unitateetan.

**Salbuespen** gisa, ohiko etxebizitza erostera bideratutako kredituen interesek eta amortizazioak eragindako gastuetarako laguntzak eskuratu ahal izango dituzte beste etxebizitza baten jabeek/gozamedunek, baldin eta ohiko etxebizitza utzi

behar izan badute irisgarritasunik ezagatik, desgaitasun-egoera batengatik edo egoera hori larriagotzeagatik, banantzeagatik edo dibortzioagatik edo beste arrazoi batzuegatik, hala nola etxegabetzeagatik edo indarkeria matxistaren biktima izateagatik, besteak beste. Salbuespen hori **3 urtez** bakarrik mantenduko da, lehenengo eskaeratik aurrera.

3 urte horietan, jabetzan duen etxebizitzaren katastro-balioa ez da zenbatuko, haren errenta, azpierretoa, lekualdatzeko edo lagapenagatik etekinak lortzen badira izan ezik.

**Gehieneko zenbatekoa 300 €** da hilean, eta ezin izango da benetako gastuaren % 70 gainditu, gizarte-larrialdiko egoeraren aurretik hartutako kredituen interes-eta amortizazio-gastuetarako.

(Ikus III. ERANSKINA).

**Beharrezko dokumentuak:** Interesdunari etxebizitzaren eta hipoteka-maileguaren eskriturak edo banketxearen ziurtagiria eskatuko zaio, mailegua ohiko etxebizitzari buruzkoa dela eta etxebizitza hori erostea dela egiaztatzeko, baita ordaindu beharreko hileko zenbatekoa ere. Banketxearen ziurtagiria ere aurkeztu ahal izango da, maileguaren helburua ohiko etxebizitza erostea dela adierazten duena.

### 3.- Elektrizitatearen, gasaren edo etxean erabiltzeko bestelako erregaien horniduratik eratorritako energia-gastuak.

Kontzeptu honen **helburua** da energiatik eratorritako gastuak estaltzea, hau da, argindar, gas edo etxeko erabilerarako bestelako erregai-hornidurei dagozkienak, bai eta hornidura etenda egonez gero hura berriro jartzeagatik gastuak ere.

Hornidura-kontratuen titularrek eskatu ahal izango dute. Horniduren ordaintzaileek ere eskatu ahal izango dute, kontratuen titulartasuna aldatu ez den kasuetan.

Etxebizitza bakoitzeko jasoko den **gehieneko zenbatekoa 600** eurokoa izango da urtean.

**Beharrezko dokumentazioa:** gastua kalkulatzeko uneko urteko erakunde hornitzaileen fakturak edo ziurtagiriak. Azpierretoamenduaren/baterako errentamenduaren kasuetan, kontratuan zehaztu beharko da energia-gastuak etxebizitza-gastuaren zenbatekoan sartuta dauden ala ez. Hala ez bada, energia-gastu zehatzaren zenbatekoa zehazten duen errentatzailearen zinpeko aitorpena

baliozkotzat joko da eskaera eta ondorengo justifikazioa egiteko. Hala ez bada, ezin izango da gizarte-larrialdietarako laguntzarik izapidetu kontzeptu horrengatik.

#### 4.- Ohiko etxebizitza edo bizitokia erabiltzeko eta mantentzeko beharrezkoak diren gastuak.

Kontzeptu horren **xedea** da gastu hauek estaltzea: ura, estolderia, zaborra, OHZ eta jabeen erkidegoa, etxebizitzaren segurtasuna (etxeko eta komunitateko aseguruak, eraikinaren ikuskapen teknikoak eta gas-galdaren mantentze-lanak) eta erkidegoaren etorkizuneko obra baterako aurrezteko onartzen diren derramak (etorkizuneko obratzat hartzen da erkidegoak aurrekontu jakin baten gainean oraindik onartu ez duena). Ordainagirik ordainduta edo helbideratuta egon behar dute onuradunaren edo bizikidetzaren unitateko kideren baten izenean.

Hornidura-kontratuen titularrek eskatu ahal izango dute. Horniduren ordaintzaileek ere eskatu ahal izango dute, kontratuen titulartasuna aldatu ez den kasuetan.

Etxebizitza bakoitzeko jasoko den gehieneko zenbatekoa **900 eurokoa** izango da urtean. Nolanahi ere, erabiltzaileak aurreko urtean egindako gastuaren gutxi gorabeherako balorazioa egingo da, eta balorazio horren arabera, eman beharreko zenbatekoa proposatzera bideratuko gaitu, bidegabeko kobrantzak saihesteko (ikus III. ERANSKINA).

**Beharrezko dokumentazioa:** urte honetako erakunde hornitzaileen fakturak edo ziurtagiriak, gastua kalkulatzeko. Azpierrentamenduaren/baterako errentamenduaren kasuan, kontratuan zehaztu beharko da mantentze-gastuak etxebizitza-gastuaren zenbatekoan sartuta dauden ala ez. Hala ez bada, eskaera eta ondorengo justifikazioa egiteko baliozkotzat joko da errentatzailearen zinpeko aitortpena, mantentze-gastu zehatzaren zenbatekoa zehazten duena. Hala ez bada, ezin izango da gizarte-larrialdietarako laguntzarik izapidetu kontzeptu horrengatik. Derramen kasuan, administratzailearen/presidentearen dokumentua, aurrezkirako direla adierazten duena, zenbatekoa eta epea adierazita.

5.- Etxebizitzaren edo ohiko bizitokiaren bizigarritasunerako eta oinarrizko ekipamendurako beharrezkoak diren gastuak. Honako hauek hartuko dira halakotzat:

5.1 "Linea zuriko" altzariak eta etxetresna elektrikoak.

**Altzarien kontzeptuaren barruan** soilik sartzen dira etxebizitza logelarako (somierra, koltxoia, arropa-armairua eta ikasketa-mahaia), jangelarako (mahaia eta aulkiak) eta sofarako erabiltzeko oinarrizko eta beharrezko elementuak.

**Altzarien kontzeptutik kanpo** geratzen dira dekorazio-elementuak, hala nola lanparak, alfonbrak, apalategiak edo gortinak.

"Linea zuriko" **etxetresna** elektrikoen kontzeptuaren barruan soilik **sartzen dira** etxetresna elektriko hauek: Hozkailua, bitrozeramika, labea, ke-guztagailua (edo ke-kanpana), garbigailua, mikrouhin-labea eta galdara/berogailua.

Kontzeptu hori ezin izango da eman:

- a.- Etxebizitzako oinarrizko ekipamenduko bi elementu baino gehiago urte berean.
- b.- aurreko bi urteetan eman bada.
- c.- alokairuko etxebizitzaren kasuan, altzaririk gabe daudenean eta kontratuan horrela jasota dagoenean izan ezik.

Laguntza somier bat eta koltxoi bat eskuratzeko eskatzen denean, elementu bakar gisa zenbatuko da.

Laguntza ikasketa-mahai bat eta aulki bat erosteko eskatzen denean, elementu bakar gisa zenbatuko da.

Kontzeptu horren **gehieneko zenbatekoa** % 50 murriztuko da, hau da, **925 €**. (Ikus III. ERANSKINA)

Altzari-elementu bakoitzeko gehieneko muga honako hau izango da:

- 90 cm-ko somierra: 150 euro
- 135/150 cm-ko somierra: 300 euro
- 90 cm-ko koltxoia: 250 euro
- 135/150 cm-ko koltxoia: 450 euro
- Arropategi-armairua: 300 euro
- Ikasketa-mahaia: 90 euro
- Jantokiko mahaia: 120 euro
- Aulkia: 50 euro
- Sofa: 450 euro

Etzetresna elektriko bakoitzeko gehieneko muga honako hau izango da:

- galdara, berogailua: 925 €
- combi hozkailua: 450 €
- bitrozeramika: 250 €
- labea: 250 €
- ke-kanpaia: 100 €
- garbigailua: 300 €
- mikrouhin-labea: 75 €
- Erradiadore elektriko indibiduala: 80 €

**Beharrezko dokumentazioa:** Interesdunari 2 aurrekontu eskatuko zaizkio edo, bestela, gastuari dagozkion fakturak. Zenbatekoa zehazteko kalkulua zenbateko txikieneko aurrekontuaren gainean egingo da. Aurrekontu horrek kontzeptuaren gehieneko zenbatekoa gainditzen badu, gehieneko zenbateko horren arabera kalkulatu da laguntza.

*5.2 Etxebizitzaren egokitzapen- edo konponketa-gastuak eta/edo oinarritzko instalazioak.*

Kontzeptu honen **xedea** konponketen ondoriozko gastuak dira, bai jabeen erkidegoari eragiten diotenak, bai eskatzaileak ohiko etxebizitzaren barruan egiten dituenak.

**Konponketak komunitate** osoari eragiten badio, komunitateko administrazioaren dokumentua eskatuko da. Dokumentu horretan adierazi beharko da obra erkidegoak onartu duela eta eskaeraren urtean egiten ari dela edo egingo dela, bai eta eskatzaileak eskaeraren urtean ordaindu beharreko zenbatekoa ere.

Pertsonak gastu hori estaltzeko dirulaguntzaren bat jasotzen duela egiaztatzen denean, GLLak osagarritasun-irizpidearen arabera arautuko dira, eta bi prestazioen artean ez dute inoiz konponketaren benetako kostua gaindituko. Etxe barruko konponketen kasuan, 2 aurrekontu eskatuko zaizkio interesdunari, edo, bestela, gastuari dagozkion fakturak.

Kontzeptu honetan sartzen da:

- Obrak egiteko materialak ordaintzea, eskatzaileak obrak egiten dituenean.
- Galdarak, termo elektrikoak, erradiadoreak, leihoak, bainugelako manparak, atek eta arropa-esekitokiak erosteko eta instalatzeko gastuak.

Ezin izango dute etxe barruko konponketen kontzeptu hori eskatu azken bi urteetan etxe horretarako GLLa jaso dutenek.

**5.2 paragrafoko zenbatekoa** zehazteko kalkulua zenbateko txikieneko aurrekontuaren gainean egingo da. Aurrekontu horrek kontzeptuaren gehieneko zenbatekoa gainditzen badu, gehieneko zenbateko horren arabera kalkulatu da laguntza.

Kontzeptu horretarako benetako zenbatekoa **925 €** izango da (ikus III. ERANSKINA).

*6.- Etxebizitza berri bat instalatzearekin lotutako aparteko gastuak.*

Kontzeptu horren **helburua** da etxebizitza bat abian jartzeak dakartzan gastuak ordaintzea, hala nola fidantza, horniduren alta eta etxebizitzaren bizigarritasunerako beharrezko egokitzapena.

Alokairuko etxebizitzaren kasuan, kontzeptu hori baliatu ahal izango da fidantzaren gastuei eta horniduren altari aurre egiteko. Etxebizitzaren bizigarritasunerako beharrezkoak diren gastuei (altzariak) dagokienez, kontratuan etxebizitza hutsik dagoela jasota dagoenean soilik eskatu ahal izango dira.

Jabetzako etxebizitzaren kasuan, etxebizitzaren egokitzapena (bizigarritasunerako beharrezkoak diren konponketak eta/edo beharrezko altzariak) "konponketak eta instalazioak" eta "altzariak eta etxetresna elektrikoak" kontzeptuekin estaliko da, hurrenez hurren.

Kontzeptu horren gehieneko zenbatekoa **1.800 eurokoa da izango da etxebizitza bakoitzeko.**

***b. Bizikidetzaren unitateko kide baten edo gehiagoren oinarrizko premiei dagozkien gastuak, hala nola jantziak, hezkuntza eta prestakuntza eta osasun-arreta, sistema publikoek estaltzen ez dituztenak.***

Kontzeptu horren **xedea** honako gastu hauek dira:

*1.- Oinarrizko premiei lotutako gastuak (jantziak, elikadura eta hezkuntza)*

Oinarrizko premiei lotutako gastuetarako laguntzen kasuan, GLLak emateko baldintza orokorrean gain, ezin izango da gastu horiek estaltzeko prestazio publikorik eduki eskaera egiten den unean, ezta 300 eurotik gorako diru-sarrera propiorik ere hilean.

Kontzeptu horren gehieneko zenbatekoa 100 eurokoa izango da hilean, urtean gehienez **1.200 eurokoa** izanik (ikus III. eranskina).

2.- Osasunari lotutako gastuak, herri-sistema ezberdinek estali ez dituztenak:

Hortz-konponketetan, betaurrekoetan/lentilletan, ortopedian eta/edo entzungailuetan egindako gastuak hartzen ditu barne, bai eta Gizarte Segurantzak, Osakidetzak, adingabeen hortzak tratatzeko PADI programak edo adingabeen kasurako betaurrekoetarako/lentilletarako VEO planak estaltzen ez dituzten bestelako osasun-gastuak ere (medikamentuak barne).

- **Hortz-konponketetan**, 2 aurrekontu eskatuko zaizkio interesdunari, tratamendua hasita dagoenean izan ezik; kasu horretan, hasitako tratamenduari dagokiona eskatuko zaio (edo, bestela, faktura).

GLLe ez dituzte hortz-erazteak aurreikusiko ezta estaliko ere, Osakidetzak estaltzen baititu. Kontzeptu honen gehieneko zenbatekoa 100 eurokoa izango da hilean, urtean gehienez 1.200 eurokoa izanik (ikus III. eranskina).

- **Betaurrekoak/lentillak** erostean, bi aurrekontu eskatuko dira (edo fakturak, bestela), bai eta txosten medikoa, non premia horiek azaltzen diren. (Betaurrekoak/lentillak eskatzen dituzten adingabeei VEO planera jotzeko orientazioa emango zaie).

**Audifonoen eta ortopediaren** gastuetan, 2 aurrekontu eskatuko dira (edo, halakorik ezean, fakturak), eta premia aipatzen duen txosten fakultatiboa.

**Gizarte Segurantzak bere gain hartzen ez dituen osasunarekin lotutako beste gastu batzuetan** (tratamendu psikologikoa, arreta goiztiarra, tratamendu onkologikoaren ondorengo osagarriak, logopeda, ortopedia eta podologia), **2 aurrekontu** eskatuko dira, eta premia hori aipatzen duen txosten fakultatiboa.

**Gizarte Segurantzak estaltzen ez dituen sendagaien** kasuan, **Osakidetzako medikuaren** txostena eskatzen da, sendagai hori aukeratu behar dela adierazten duena.

Ezin izango dute kontzeptu hori eskatu azken bi urteetan, pertsona bakoitzeko, GLLa jaso dutenek, adingabeentzako sendagaien eta laguntzen kasuan izan ezik. Betaurrekoen/lentillen azpikontzeptu zehatzari dagokionez, ezingo da pertsona berarentzat eskatu 5 urte igaro arte, fakultatiboaren txosten baten bidez graduazio-aldaketarik dagoela egiaztatzen denean salbu.

Osasunarekin zerikusia duten gastu guztietan, zenbateko txikiena duen aurrekontuaren gainean kalkulatu da zenbatekoa. Aurrekontu horrek kontzeptuaren gehieneko zenbatekoa gainditzen badu, gehieneko zenbateko horren arabera kalkulatu da laguntza.

**2026ko urriaren 1etik aurrera, ezingo da kontzeptu hori eskatu hortz-konponketetarako, betaurreko/lentilla edo audifonoetarako, urte horretan egindako gastua bermatzen duen fakturarekin izan ezik.**

Premia primarioei buruzko b) ataleko kontzeptuengatik gehieneko zenbatekoa 1.200 eurokoa izango da, betaurreko/lentillen kasuan izan ezik; kasu horretan, gehienez 320 euro emango dira betaurreko edo lentilla bakoitzeko. (Ikus III. eranskina).

Oinarrizko premien eskatzaile batek oinarrizko premiak betetzeko eskubidea badu, oinarrizko premien zenbatekoa emango da lehenik, eta gainerako zenbatekoa lehen mailako premietarako emango da.

***c- Aldez aurreko zorpetzea, a) eta b) idatz-zatietan adierazitako gastu-kontzepturen batek edo bizitzako oinarrizko beste premia batzuei erantzuteko egin beharreko gastuek eragindakoa.***

Kontzeptu horren helburua da a) eta b) ataletan jasotako GLLetako edozein kontzeptutan zorrak eragindako gastuak estaltzea, bai eta bizitzako oinarrizko beste premia batzuei erantzuteko beharrezkoak diren gastuak estaltzea ere.

Zorpetzea uneko urteko edo aurreko urteetako ez-ordaintzeetatik eratorri ahal izango da, baldin eta ez bada gizarte-larrialdietarako laguntzarik edo bestelako prestaziorik jaso zorpetzea sortu duten gastuak estaltzeko. Zorra efektiboa ez denean ere eman daiteke, baldin eta zorra hartzeko arriskua berehalakoa edo saihestezina bada.

Zorpetzea eragiten duen kontzeptua eskuratzeko baldintzak betetzen dituztenek soilik baliatu ahal izango dute kontzeptu hori.

**C apartatu** honetan emango den **gehieneko zenbatekoa** kontzeptu bakoitzerako berariaz ezarritakoa izango da. Ezingo du inola ere **3.000 €**-tik gorakoa izan etxebizitza bakoitzeko (ikus III. ERANSKINA).

Arestian adierazitakoa alde batera utzi gabe, aldez aurreko zorpetze-gastuengatiko urteko gehieneko zenbatekoak ezin izango ditu kasu bakoitzean kontzeptu horietarako aurreikusitako gehieneko zenbatekoak gainditu.

#### **4. Eskaerak egiteko epeak.**

**2026. urteko GLLak eskatzeko epea martxoaren 23an hasi eta azaroaren 5ean amaituko da.** Hala ere, GLLak aurrez aurre eskatzen direnez oinarrizko gizarte-zerbitzuarekin adostutako hitzorduan, epea azaroaren 5a baino lehen amaitu ahal izango da, hitzordu eskuragarriak geratzen ez bada.

#### **5.- Eskabideak eta erantsi beharreko agiriak:**

Eskatzaileak honako agiri hauek aurkeztu ahal izango ditu eskabidearekin batera, behar bezala formalizatuta:

- a) **Datuak kontsultatzeko eta egiaztatzeko oposiziorik eza**, bizikidetzaren unitateko kide guztiek sinatuta, Getxoko Udalaren ereduaren arabera (DN 339).
- b) **Erantzukizunpeko adierazpena eta datuak kontsultatzeko baimena, Eusko Jaurlaritzaren ereduaren arabera.**
- c) Ordezkaritzaren egiaztagiria, eredu normalizatuaren arabera, onuraduna ez den beste pertsona batek aurkeztutako eskaeren kasuan.
- d) Familia-liburuaren fotokopia eta/edo, hala badagokio, zaintza eta jagoletza edo tutoretza egiaztatzen duten agiriak, lehenago aurkeztu ez badu.
- e) Banantze-epaia eta hitzarmen arautzailea edo, hala badagokio, banantze-demanda, lehenago aurkeztu ez badu, eta azken ordainketaren fotokopia, halakorik badago.
- f) Indarkeria matxistaren biktima izanez gero, administrazio-egiaztagiria aurkeztu beharko da.
- g) Besteren konturako langileak: lan-kontratua eta uneko urteko nominak. Norberaren konturako langileen kasuan, uneko urteko BEZaren hiruhileko aitorenak eta Gizarte Segurantzari egindako ordainketen kopia.
- h) Gaztelagun alokairua ordaintzeko laguntza jasoz gero, laguntza jaso izanaren egiaztagiria.
- i) Enplegu-eskatzailearen ziurtagiria.
- j) Jatorrizko herrialdeko ondasunen jabetzari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, eredu normalizatuaren arabera. Jabetzarik izanez gero, titulartasun-ziurtagiria aurkeztu beharko da, ondasunaren balioa adierazita
- k) Beste udalerrri batzuetatik lekualdatuz gero, uneko urtean GLLa jaso den edo ez adierazten duen ziurtagiria.
- l) Bizikidetzaren unitateko kide guztien banku-saldoak, eredu normalizatuaren arabera.

m) Banku-helbideratzearen orria eta, hala badagokio, banku-endosuarena, eredu normalizatuen arabera.

n) Beharraren egiaztapenari buruzko dokumentuak, kontzeptu bakoitzaren arabera.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak 28. artikuluan ezartzen duenez, interesdunek eskubidea dute dagoeneko administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egindako dokumentuak ez aurkezteko.

Getxoko Udaleko gizarte-zerbitzuek dokumentu horiek kontsultatu edo eskuratu ahal izango dituzte, salbu eta interesduna horren aurka agertzen bada arrazoiak emanez. Kasu horietan, interesdunak laguntza izapidetzeko behar den dokumentazioa aurkeztu beharko du.

Izaera pertsonaleko datuen tratamendua legitimatuta dago interes publikoaren izenean edo Getxoko Udalari berari emandako botere publikoaren izenean burututako eginkizun bat betetzean, honako hauetan aurreikusitakoaren arabera:

- DBEO: 6.1.a) Interesdunak baimena eman zuen bere datu pertsonalak helburu zehatz baterako edo batzuetarako tratatzeko.
- DBEO: 6.1.c) Tratamenduaren arduradunari aplikagarri zaion legeko betebeharrak betetzeko beharrezkoa den tratamendua.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

Getxoko Udalak egiaztatuko du araudi honetan prestazio/laguntza/dirulaguntza/beka hau eskuratu eta mantentzeko ezarritako baldintzak betetzen diren, administrazio publikoaren bitarteko telematikoen bidez jasotako informazioaren arabera.

### **6. Ebazpena eta jakinarazpena:**

Eskaera guztiak idatziz ebatzi eta jakinaraziko zaizkio interesdunari, gehienez ere bi hilabeteko epean. Adierazitako epean berriazko ebazpenik ematen ez bada, eskaera ezetsi egin dela ulertuko da, urtarrilaren 18ko 4/2011 Aginduaren 19. artikulua arabera. Nolanahi ere, ukapena berriaz jakinarazi beharko da. Emateko edo, hala badagokio, ukatzeko edo atzera egiteko ebazpena arrazoitu egin beharko da, eta udalak eskatzaileari jakinaraziko dio, egintza eman eta hamar eguneko epean.

## **7. Laguntzaren justifikazioa.**

Laguntzak justifikatzeko, eman diren kontzeptuei buruzko ordainagiriak eta/edo jatorrizko fakturak aurkeztu beharko dira, eta beste erakunde batek emandako dirulaguntzaren bat jaso bada, horren ebazpena aurkeztu beharko da.

Honako laguntza hauek justifikatutzat joko dira:

- **Alokairuaren (modalitate guztietan), interesen eta kredituen amortizazioaren** kontzeptuetan, honako hauek aurkeztu beharko dira: emandako aldiaren ordainagiri **guztiak**, etxebizitzaren jabearen izena jasotzen duen bankuaren ordainagiriak edo jabearen sinadura eta NANA eta erabiltzailearen oniritzia dituen hartu-agiria.

- Etxebizitzako **energia-, gas- eta ur-gastuetarako**, ordaindutako fakturen ziurtagiria/laburpena aurkeztu beharko dute, erakunde hornitzaileak egina, eta **emandako zenbatekoa adinakoa, gutxienez**. Ziurtagiriak/laburpenak laguntzaren onuradunaren izenean egon beharko du, azpierrementamenduen eta tutoretzapeko apartamentuen kasuetan izan ezik; kasu horietan, ontzat emango dira titularraren izenean dagoen ordainagiria eta ordainagiria jasotzen duen banku-laburpena. Halaber, ontzat emango dira titularraren izenean dagoen ordainagiria eta ordainagiria, enpresa hornitzaileek laburpen-ziurtagiria ematen ez badute edo ziurtagiri horrek kontsumoak ordaindu direla zehazten ez badu. Justifikazioa egiterik ez dagoen gainerako kasuak banaka baloratuko dira.

- Etxebizitza berri bat, **altzariak eta "Linea Zuria" etxetresna elektrikoak instalatzea**, Egokitapenak, **konponketak eta/edo instalazioak eta Oinarrizko beharrak** kontzeptuetan, **emandako zenbatekoaren pareko zenbatekoa** duten fakturak aurkeztu beharko dira gutxienez.

- **Lehen mailako premien** kontzeptuan, emandako azpikontzeptuen arabera fakturak aurkeztu beharko dira (betaurrekoak, lentillak, dentista...), gutxienez emandako zenbatekoaren berdina den kopuru bategatik.

- **Oinarrizko premien** kontzeptuan ez da beharrezkoa izango justifikazioa.

Zenbaki honetan aurreikusi ez denari Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 30. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaio.

**Justifikatzeko epea 2027ko urtarrilaren 29an amaituko da.**

GLLEkin finantzatzen diren gastuak 2025ekoak dira, baina justifikazio-aldia amaitu arte ordain daitezke, hau da, **2027ko urtarrilaren 29a** arte.

Abenduan ordaintzen diren eta dentista-kontzeptua emanda duten laguntza-fakturazioak (remesak) **2027ko otsailaren 27ra** arte justifikatu ahal izango dira.

2027ko urtarrilean ordaintzen diren laguntza-fakturazioak egongo balira, **2027ko otsailaren 27ra** arte justifikatu ahal izango lirateke.

Urtarrilean ordaintzen diren laguntza-sortak 2026ko otsailaren 27ra arte justifikatu ahal izango dira.

Laguntza justifikatzen ez bada, prestazioak itzultzeko prozesua hasiko da.

GLLen onuradunek idatziz eskatu ahal izango dute laguntza, osoa edo partziala, borondatez itzultzeko, laguntza itzultzeko prozedura hasteko Dekretua onartu aurretik, Dirulaguntzei buruzko Legearen Erregelamendua arautzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 90. artikuluan araututakoaren arabera.

## **8. Erreferentziako legeria. Txertatu berria**

- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena.
- 14/2022 Legea, abenduaren 22koa, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemarena.
- 173/2023 Dekretua, azaroaren 21ekoa, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren Erregelamendua onartzen dueña
- 21/2026 Dekretua, otsailaren 24koa, Gizarte Larrialdietarako Laguntzen Erregelamendua onartzen duena.
- 2026ko martxoaren 31ko Agindua, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburuarena eta Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuarena, udalei gizarte-larrialdietarako laguntzak finantzatzeko transferitu beharreko zenbatekoak zehazten dituena, Gizarte Larrialdietarako Laguntzen Erregelamendua onartzen duen otsailaren 24ko 21/2026 Dekretuaren 36.1 artikulua betez
- 3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena, etxebizitza bat bizitzeko premia gisa gozatzeko eskubidea arautzen duena, bigarren xedapen gehigarria eta

55/2026 Dekretua, apirilaren 21ekoa, etxebizitzaren arloko erregelamenduxedapenak presaz aldatzen dituena.

- 147/2023 Dekretua, urriaren 10ekoa, Etxebizitza bat okupatzeko eskubide subjektiboari buruzkoa

- 19/2021 Legea, abenduaren 20koa, Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarrera ezartzen duena.

- Getxoko Udalaren eta haren erakunde autonomoen dirulaguntzen ordenantza orokorra, 2021eko abenduaren 23ko Osoko Bilkurak onartua eta 2022ko martxoaren 16ko BAOn (52. zk.) behin betiko argitaratua eta 2024ko azaroaren 28ko Osoko Bilkuraren erabakiaren bidez aldatua.

Getxon, 2026ko Ekainaren 4an

Unai García Gallastegui

**Gizarte Kohesiorako Arduraduna /**

Responsable de Cohesión Social

**9.- I. eranskina: Diru-sarreraren arabera eman beharreko zenbatekoen mugak**

| Osagarri mota                                  | Osagarria   | %   | Euroak   |
|--|---|-----|----------|
| Oinarrizko zenbatekoa                          | BU  |     | 583,07 € |
| Osagarri indibidualak<br>(BU dauden pertsonak) | Titular   | 50% | 291,54 € |
|  | 2º heldua   | 50% | 291,54 € |
|  | Gainerako kideak  | 30% | 174,92 € |
| BU ezaugarriei<br>lotutako osagarriak          | Pentsioduna   | 40% | 233,23 € |
|  | Gurasobakartasuna,<br>salerosketaren, genero-indarkeriaren,<br>sexu-esplotazioaren eta etxeko<br>esplotazioaren biktimak<br>Desgaitasuna >=33%, Mendekotasuna | 25% | 145,77 € |

**10. II. eranskina: ondarearen arabera eman beharreko zenbatekoen muga:**

| ONDAREA                        | DAGOKION % |
|--------------------------------|------------|
| < 15.742,89 €                  | % 100      |
| > 15.742,89 €<br>< 31.485,78 € | % 75       |
| > 31.485,78 €<br>< 41.981,05 € | % 50       |

### 11: III. ERANSKINA. 2026. urterako ZENBATEKOAK

| KONTZEPTUA   | KONTZEPTUAK,<br>BANAKATUTA  | GASTU<br>ERREALAREN<br>GAINEKO MUGA          | 4/11 DEKRETUAREN<br>11.2 ARTIKULUAN<br>OINARRITUTAKO MUGA |        |
|--|---|--|---|--------|
|  |   |  | URTEAN  | HILEAN |
| <b>a. Ohiko bizilekua edo etxebizitza erabiltzeko eta mantentzeko gastuak</b>  |   |  |   |        |
| 1.- Etxebizitzaren alokairua   | 1 UC  | Alokairuaren prezioaren % 70 baino txikiagoa | 3.600 €   | 300€   |
|  | 2 BU azpierrentamendua / ostaturako aukera  | Alokairuaren prezioaren % 80 baino txikiagoa | 1.800 €   | 150€   |
|  | Ostatatzea hostaletan, hoteletan, pentsioetan eta gizarte-erakundeen etxebizitzetan | Logela-kopuruaren arabera                    | 3.600 €   | 300€   |
| 2.- Kredituen amortizazioa eta interesak   | Egoitza   | % 70 baino txikiagoa                         | 3.600 €   | 300€   |
| 3.- Energia-gastuak, gasarenak edo etxean erabiltzen diren bestelako erregaienak.  | Egoitza   |  | 600 €   | 50€    |
| 4.- Ur-, zabor-, estolderia- eta OOH gastuak, etxeko aseguruak, ERA eta galdarak mantentzeko gastuak.  | Egoitza   |  | 900 €   | 75€    |
| 5.- Linea zuriko altzarien eta etxetresna elektrikoaren gastuak.   | Somiera   | 300 €  | 925€  |        |
|  | Koltxoia  | 450€   |   |        |
|  | Arropa-armairua   | 300€   |   |        |
|  | Ikas-mahaia   | 90€  |   |        |
|  | Jangelako mahaia  | 120€   |   |        |
|  | Aulkia  | 50€  |   |        |
|  | Sofa  | 450€   |   |        |
|  | Galdara   | 925€   |   |        |
|  | Konbi hozkailua   | 450€   |   |        |
|  | Bitrozeramika   | 250€   |   |        |
|  | Labea   | 250€   |   |        |
|  | Ke-kanpaia  | 100€   |   |        |
|  | Arropa-garbigailua  | 300€   |   |        |
| Mikrouhin-labea  | 75€   |  |   |        |
| Banakako erradiadore elektrikoa  | 80€   |  |   |        |
| 5.2.- Egokitzapenak, konponketak edota instalazioak egiteko gastuak  |   |  | 925 €   |        |
| 6.- Etxebizitza berri bat instalatzearekin lotutako aparteko gastuak, hala nola fidantza, horniduretan alta ematea, egokitzapena eta beste batzuk. | Egoitza   |  | 1.800 €   |        |

| b. Lehen mailako premiei dagozkien gastuak                      |                                       |         |         |      |
|---|---------------------------------------|---------|---------|------|
| 1.- Oinarrizko premiekin lotutako gastuak.                      |                                       | 1.200 € |         | 100€ |
| 2.- Osasunari lotutako gastuak                                  | Hortzetako konponketak                | 1.200 € | 1.200€  |      |
|   | Betaurreko/lentilla bakoitza          | 320€    |         |      |
|   | Audiofonoak/ortopediak/               | 1.200€  |         |      |
|   | Osasunari lotutako beste gastu batzuk | 1.200€  |         |      |
| c. Aurreko kontzepturen batek eragindako alde zurreko zorpetzea |                                       |         |         |      |
| Mugak, kontzeptu bakoitzaren mugen arabera                      | Egoitza                               |         | 3.000 € |      |